

Burtsaren crackak: depresio ekonomikoaren bezpera

1929ko krisialdi finantzarioak egungoaren antz handia du, eta bada gaurkoa askoz larriagoa izango dela esaten duenik ere. 1929ko urriaren 24an akzio guztien prezioak amildu egin ziren eta inbertitzaileek ihes egin zuten. Burtsaren crackak depresio ekonomikoaren bezpera dira.

DANIEL UDALAITZ

1929AN, URRIAREN 24AN, burtsaren lehen krisi handia gertatu zen eta handik sortu zen crack terminoa: burtsan kotizatzen duten balore gehienak oso bizkor erortzen direnean sortzen den egoera. Kotizazioen beherakada bortitza hori, burtsaren saio bakarrean gertatu ohi dena, hasiera batean merkatuaren beraren doitze mekanismoa baino ez da. Cracka burtsaren euforia aldiaren amaiera da, eta atzeraldi ekonomikoaren bezpera izan daiteke, 1929an gertatu bezala. Orduan, beherakadak depresio ekonomiko handia ekarri zuen hurrengo urteetan. Horrela azaltzen da, laburrean, cracken arrazoiak. Eta horrela azaltzen da 1929koa.

Azken hilabeteotan gertatutakoa cracka izan al da? Ez bada, antza handia du behintzat, eta bada cracka baino gehiago dela dioenik ere. Antzeko egoerak noizean behin gertatzen direnez, arti-



Langabetuentzako doako dendan daude ilaran. Afixek diotenaren arabera, kafea, zopa eta donutak bederen doan izango dituzte.

kulu honetan 1929ko burtsaren porrota eragin zuten arrazoiak azalduko ditugu, baita ekonomian izan zituen ondorioak ere, irakurleak burtsen crack guztien giltzarrien berri sakonago izan dezan.

1929ko cracka

Garaiko zenbait begiraleren ustez, 1929ko lehen sei hilabeteetan akzioen prezioek neurritz kanpoko

balioa zuten DJIAN, Dow Jones Industrial Average, munduko erreferentzia indize nagusian. Hala ere, New Yorken kotizatutako tituluak oraindik merkeak zirela pentsatzeko joera zuen merkatuak. 1929ko urriaren 3an aipatutako erreferentzia indizeak hamar eguneko jaitziera etengabeari ekin zion. 1929ko urriaren 21ean, astelehenean, saltzeko agindu asko izan ziren eta gauean zehar, astearteko saioa hasterako, europar bankuetatik zetozen saltzeko agindu ugari pilatu ziren. Urriaren 22ko goizean, Ipar Amerikako banku eta enpresa ugari

150 milioi dolar akziotan saltzeko agindua eman zuten. Wall Street irakiten ari zen.

1929ko urriaren 24an inbertitzaile txikiak erlojuaren kontrako lasterketan abiatu ziren, saltzeko aginduek parketa estali zuten, eta New York Stock Exchange erome-nak hartu zuen. Ohiko saioetan 800dik behera kide egon ohi ziren merkatuan. Urriaren 24ko jarduna

ireki zenean, 1.100 langile baino gehiago saioari hasiera eman ohi zion kanpai hotsaren zain zeuden, urduri. Goiza dohakabea izan zen; Dow Jones-ek saioa 299 puntutan itxi zuen, urte guztian pilatutako irabazi guztiak galduz. Hurrengo egunetan, indizeak behera egiten jarraitu zuen eta, agintari estatubatuarren estimazioaren arabera, 30.000 milioi dolar inguruko galera izan zen.

1929ko burtsaren beherakada hainbat eragileren nahaste saihestezinak ekarri zuen. Sektore industrialaren mozkinak soldatak baino askoz gehiago hazi ziren, eta nekazaritza produktuen prezioekiko, eta enpresen ekoizpenen eta produktibitatearen indizeekiko diferentzial handiak pilatu ziren. Nekazaritzako nahiz industriako soldaten hazkunde mugatuak erosteko ahalmena murriztu zuen eta, era berean, horrek enpresetako inbertsioak jaitea eragin zuen. Enpresetako jabeek ez zuten uste izan mozkin handi horiek berriro inbertitzea beharrezkoa zenik, eta kapital soberakinentzat irtenbidea topatu zuten: burtsan espekulaztea.

20ko hamarkadako New Yorkeko akzioen merkatuan oso ohikoa zen kreditu bidezko tituluen salerosketa sistema erabiltzea. Eragiketaren bitartekariak, brokerrek, berme gisa, balioaren portzentaje bat besterik ez zuten eskatzen, eta eragiketaren gainerako kopurua bermatzeko tituluak berak onartzen zituzten. Fluktuazioak gertatzen ziren heinean, bitartekariak funts hornidurak eskatzen zituzten kotizazioen beherakadak berdintzeko, eta horrek bitartekarien entitateek bankuekiko zor handiak pilatzea ekarri zuen. 1925 eta 1929 artean entitate horien kredituak 3.000 milioi dolarretatik 7.000 milioi dolarretara iritsi ziren.

Neurri monetarioak

Agintari monetario estatubatuarrek hainbat erabaki hartu zituzten akzioen prezioen gorakada etete-

Burtsaren porrotetik finantza eta enpresen hondamendira

Hasieran aldi baterako krisialditzat jo zena, depresio handia bilakatu zen. Hainbat bankuk eta enpresek porrot egin zuten (5.000 bankuk 1929tik 1932ra) eta ondorioz langabeziaren gaitza zabaldu zen. 1932an, Amerikako Estatu Batuetan 12 milioi langabetu zeuden, Alemanian 6 milioi eta Ingalaterran 3 milioi. Kontsumoak behera egin zuenean, sektore pribatuaren inbertsioak %70 jaitsi ziren 1929an lortutakoekin alderatuta, eta enplegu, soldata eta prezioen adierazleak %50 inguru.

Depresio handia berehala zabaldu zen eta, bereziki, Amerikako Estatu Batuen menpe zeuden ekonomiei eragin zien, batez ere lehengaien esportazioan oinarritutako ekonomia zutenei.

Bankuen porrotak enpresa asko eraman zituen herrestan, eta mailegurako ahalmena eta inbertsiorako mekanismoak muturre-raino gutxitu zituen. Nazioarteko merkataritza asko murriztu zen. 1929an nazioarteko transakzioen bolumena 5.500 milioi dolarrekoa zen, gutxi gorabehera, eta 1932an 1.800 milioikoa besterik ez. Halaber, industriaren ekoizpenak %40 baino gehiago egin zuen behera 1929 eta 1932 artean.

1955a arte, 26 urte geroago, New Yorkeko burtsak ez zuen 1929ko maila lortu. Dow Jones-ek 1972an gainditu zituen 1.000 puntuak. 2000. urteko urtarilaren 14an lortu zuen maximo historikoa, 11.722,98 punturi esker.



Oklahomatik Kaliforniara emigratutako 18 urteko ama haurrerekin. 1937ko argazkia da.

ko. Horretarako, Erreserba Federalak tituluen erosketa masiboa jarri zuen abian, interes-tasa jaitsarazi asmoz eta, modu horretan, Ipar Amerikako merkatuak eskaintzen zuen errentagarritasun altuak erakarrirako atzerriko kapitalaren inbertsioak apaltzeko. Baina lortu zuen gauza bakarra saltzaileen likidezia handitzea izan zen eta horrek kotizazioak berriro ziztu bizian igotzea eragin zuen.

New Yorkeko burtsaren inguruan euforia giroa zegoen eta lehendakartzak bidalitako mezuek inbertitzaile ugari piztu zituzten, merkatuak goranzko joera izango zuela pentsatuz.

1929. urtearen erdialdetik aurrera, Erreserba Federalean interes-tasak gero eta gehiago igo ziren, burtsaren espekulazio maila jaiteko xedez. Horregatik, bankuek entitate bitartekariak ematen zituzten maileguak jaitsi ziren, eta entitate horiek erosleak eskaerei aurre egiteko likidezia galtzen joan ziren. Une horretantxe New Yorkeko burtsaren indize selektiboa gelditzen hasi zen; Erreserba Federalaren maniobra berandu iritsi zen. Urriaren 2an ohikoa baino askoz akzio gehiago ipini zituzten salgai, merkatua salmenta kiribilean sartu zen eta, hala, ia etengabe goranzko joera izan zuten hiru urteak amaitu ziren. Porrot horrek aro kapitalistaren krisirik gogorrenari hasiera eman zion, eta ia Bigarren Mundu Gerraren hasiera arte luzatu zen atzeraldiaren abiapuntu izan zen. ■